

# TOLOSAKO JAIEN BERDINTASUN BEHATOKIAREN OINARRI DOKUMENTUA

*Farapi koop. Elkarteak*  
*2016ko abendua*

# AURKIBIDEA

AURKIBIDEA .....	2
SARRERA .....	3
JUSTIFIKAZIOA.....	4
LAN PROZESUA .....	6
1. Behatokiaren barne-diseinua .....	6
2. Udal barneko kontrastea.....	7
HELBURUA .....	11
FUNTZIOAK.....	11
AZTERKETA EDUKIAK ETA ALDAGAIK.....	12
1. Komunikazioa .....	12
2. Egitaraua .....	13
3. Indarkeria sexista .....	15
Antolakuntza.....	16
BEHATOKIAREN FUNTZIONAMENDUA .....	18
1. Funtzionamendu irizpideak .....	18
2. Partaideak .....	18
3. Funtzionamendu eredia eta tresnak .....	18
3.3.1. Plangintza .....	19
3.3.2. Informazioa jaso .....	20
3.3.3. Analisia .....	20
3.3.4. Komunikazioa.....	21

## SARRERA

Tolosako Jaien Berdintasun Behatokia Tolosako udaleko berdintasun sailak sustatutako proiektua da, Farapi Koop. Elkartearen aholkularitza teknikoa eta dinamizazioarekin. 2016 urtean burutu den proiektua izan da, eta azken sei urteetan Tolosako jaietan genero ikuspegia txertatzeko prozesuari jarraipena ematen dio, egindako lanari norabide bat eman eta sistematizatuz. Izan ere, Behatoki hau jaietan berdintasun ikuspegia era estrategiko eta koordinatu batean aplikatzeko tresna izateko bokazioarekin jaiotzen da.

Behatokia eratzearen lan-prozesua hiru fasetan burutu da: Behatokiaren barne-diseinua, udal barneko kontrastea eta kanpo sozializazioa. Berdintasun sailak izan du lidergoa eta gidaritza, baina udalean jaiekin lotura duten departamentu guztiekin koordinatu eta kontrastatu da, eta amaieran, jaien antolakuntzan parte hartzen duten eragileei komunikatu zaie.

Dokumentu honetan Tolosako Jaien Berdintasun Behatokia martxan jartzeko beharrezkoa den oinarrizko informazioa jasotzen da, Behatokiaren gida-liburua dela esan dezakegu. Hasieran, Behatokiaren egitasmoa kokatu eta justifikatzen da, eta Tolosan jaietan genero ikuspegiak izan duen ibilbidea azaltzen da. Ondoren, Behatokiaren eraketa prozesua nolakoa izan den azaltzen da. Gero, Behatokiaren helburua eta funtzioak azaltzen dira, prozesu honetan zehar udal barnean adostu direnak. "Azterketa edukiak eta aldagaiak" atalean, Behatokiak zer aztertuko duen azaltzen da, jaietan genero ikuspegiaren inguruko analisia egiteko beharrezkoak diren aldagai guztiak kontuan hartuz. Eta azkenik, Behatokiak bere funtzioak nola beteko dituen zehazten da, eta horretarako zein tresna sortu dituen.

## JUSTIFIKAZIOA

Jaiak bizitza sozialeko jarduera garrantzitsuak dira: herrien identitatearekin oso lotuta daude eta komunitateak elkartzeko eta kohesionatzeko funtzioa ere betetzen dute: jaietan parte hartzeak herriaren parte egiten gaitu, eta jaietan aukera berdinekin parte ez hartzeak, komunitatearen partaide izatetik baztertzen gaitu. Emakumeak historikoki partaidetza sozio-politikotik eta herritartasunetik urrutiago egon dira, eta jaien testuinguruan ere ez dute partaidetza aktibo eta prestigiozkora heltzeko aukera berdinak izan.

Era berean, jaietan gertatzen denak eragin zuzena du bizitzaren beste esparruetan, eta gizarteko egitura eta rol sozialek ere eragina dute jaietan. Jaietan emakume eta gizonen arteko desberdintasun egoerak erreproduzitzen dira, eta gainera, jaiak tradizioari oso lotuta daudenez, garai bateko genero rola, estereotipoak eta harreman hierarkikoak are indartsuago erreproduzitzen dira. Adibidez, gaur egun emakumeak ia ofizio guztietan daude, baina herri kirolak irudikatzean, garai batean gizonak egiten zuten ofizioak eszenifikatzen dira, eta beraz, neurririk hartu ezean, espazio publikoan gizonen zuzendutako erritualak nagusituko dira.

Guzti honengatik garrantzitsua da gure herrietan dugun jai ereduaren eta emakume eta gizonen partaidetzaren inguruko hausnarketa partekatua egitea, eta partaidetza berdinzale eta integratzailea eman dadin baldintzak jartzea. Udalen ardura politikoa eta betebeharrak legala<sup>1</sup> da aukera berdintasuna bermatzea eta jaiak antolatzen duten eragileak zein herritarrak orokorrean gaiaren inguruan kontzientziaztea. Tolosan gainera, jai, festa eta azokek protagonismo handia dute, herri nortasunarekin oso lotuta daude eta antolakuntzan herritarren partaidetza altua eta konprometitua da. Horregatik, esparru honetan berdintasuna sustatzean, herriaren bizitza sozialaren maila handi batean eragiten da.

Tolosako udalak 6 urteko ibilbidea dauka jaietan berdintasun politikak txertatzen, bi lan-ildoren bitartez: *Indarkeriarik eza* eta *emakumeen partaidetza eta ikusgarritasuna areagotzea*.

---

1


*4/2005 legea, otsailaren 18koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasuneko eta Tolosako kasuan, Emakumeen eta Gizonen arteko berdintasunerako Tolosako ordenantza munizipala (2008).*

Bigarren honetan, berdintasun sailetik jaien genero analisiak (komunikazio edukiak, ohorezko jardueretan emakumeen partaidetza, sari banaketak...) eta irizpide eta gomendioak egin dituzte. Udaleko beste departamentu eta herri elkarteekin elkarlanean, aurrerapen nabarmenak ematea lortu da: agerraldi eta idatzizko mezuetan hizkuntza, eduki eta irudi ez-sexistak bermatu, epai-mahai parekideak bultzatu, lehiaketen oinarriak egokitu, berdintasun saria sortu, ekintza feministak sartu egitarauan eta emakumeen presentzia areagotu ohorezko ekintzetan (txupinazoa, eskopetarien jenerala...), besteak beste. Azpimarratzekoa da 2013-2015 urtean jaiak birpentsatzeko eta sentsibilizaziorako partaidetza prozesua egin zela herritarrekin, eta bertatik ateratako ondorioak abiapuntu moduan hartuz *“Jaiak berdinzaleagoak egiteko gida”* argitaratu zela 2016an. Prozesua zein gida oso ondo baloratuak izan dira, eta beste herri batzuetan ere aplikatzen ari dira gaur egun.

Ibilbide guzti honen ondorioz, esan dezakegu Tolosa aitzindari eta eredugarri bihurtu dela jaietan berdintasun politikak txertatzen. Izan ere, baldintza paregabeak eta sinergia eraginkorrak ematen dira bertan: berdintasun sail errotu eta konprometitua, inplikazio politiko argia, kontzientziazioa eta kolaborazioa maila teknikoan, eta herri eragileen konplizitatea gaia lantzeko. Aukera guzti hauek eta Tolosako ibilbide oparoa kontuan hartuz, gaia lantzeko hurrengo urratsa Behatokiaren diseinua eta abian jartzea izango da, eta Tolosaren erreferentzialtasuna mantendu eta beste herrientzat eredugarri izaten jarraitzeko aukera izango du.

## LAN PROZESUA

Behatokia definitu eta eratzeko prozesua 2016 urtearen bigarren hiruhilabetekoan egin zen, eta hiru fase izan zituen. Ondorengo taulan hiru fase hauek azaltzen dira eta azpian, xehetasun gehiagorekin, fase bakoitzaren helburuak, lan prozedura eta dinamikak, partaideak eta lortutako emaitzak.



### 1. Behatokiaren barne-diseinua

Lehendabizi, Farapiko lantaldea eta Berdintasun sailaren artean lan dokumental bat egin da. Lan honek bi norabide izan ditu: Batetik, Tolosan berdintasunaren gaian oinarri diren dokumentuak eta jaiekin lotura zuzena dutenak aztertu dira, hala nola:

- Emakume eta Gizonen Berdintasunerako diagnostikoa eta III. Plana (2015-2020)
- Sexu erasoak jai egunetan. Udal zerbitzuen betebeharrak (2016).
- 2015 eta 2016 urteen bitarteko jai bileretako aktak.
- 2008-2016 Berdintasun sailak jaietan sustatutako hobekuntzak eta beste departamentuei emandako berdintasun aholkuak eta irizpideak.
- 2013-2016 San Joan festetako eta Inauterietako kartel eta egitarauak.

Bestetik, Behatokiaren inguruko informazio bibliografiko teorikoa eta esperientzia praktiko batzuk ezagutu ditugu, inspirazio iturri izan zaizkigunak. Hauek izan dira kontsultatutako oinarriak:

- Observando Observatorios. ¿Nuevos agentes en el Tercer Sector? Plataforma del Voluntariado de España. Madrid, 2010.
- ¿Qué son los Observatorios y cuales son sus funciones? Angulo Marcial, Noel. Innovación Educativa, vl. 9.
- Observatorio de igualdad de género y LGTBI de Gran Canaria. Farapi Aholkularitzak egindako partaidetza prozesua, 2015.

Dokumentazio guzti hau aztertu ondoren, Tolosako Jaien Berdintasun Behatokia eratzeko zein alderdi izan behar diren kontuan eta galdera gakoak zeintzuk diren identifikatu ziren. Horrela, prozesuan landu beharreko lau atal hauek zehaztu ziren:

- Behatokiaren beharra eta justifikazioa
- Behatokiaren helburu eta funtzioak
- Berdintasun irizpideak
- Behatokiaren lan prozesua

Atal hauetako bakoitzerako proposamen zirriborroak landu ziren Farapiko lantaldea eta Berdintasun sailaren artean, eta Behatokia materializatzen hasteko helburuarekin, Behatokiaren funtzionamendu tresna sortzen hasi zen (gaikako excel sorta bat da).

Landutako guztia Tolosako Jaien Berdintasun Behatokiaren Oinarrien dokumentu batean jaso zen, eta bi partaidetza saiotan kontrastatu zen: lehendabizi, berdintasun teknikariek, eta ondoren, berdintasun zinegotzia eta alkatearekin. Bi saio hauetan egindako lana oso ondo baloratu zuten, eta ekarpen eta zehaztasun batzuk gehitu zituzten dokumentuari. Berauek aztertu eta jasota, Farapiko lantaldeak, Tolosako Jaien Berdintasun Behatokiaren Oinarrien dokumentu kontrastatua erredaktatu zuen.

## 2. Udal barneko kontrastea

Tolosako Jaien Berdintasun Behatokiak Berdintasun zuzendaritzaren zuzendaritza izango du, baina bere funtzioak bete ditzan, beharrezkoa da udaleko gainontzeko departamentuekin koordinazioa eta kolaborazioa mantentzea. Horregatik, lehentasunezkoa da jaiekin lotura duten departamentuetako teknikariak prozesuan inplikatzeari eta Behatokia beraien behar eta irizpideetara egokitzea.

Horretarako, lehendabizi, Tolosako alkatearen izenean gutun bat bidali zitzaien departamentuetako politikariei, prozesuaren berri emateko. Ondoren, berdintasun teknikaria sailtako teknikariekin zuzenean harremanetan jarri zen zalantzak argitu eta partaidetza saio batera gonbidatzeko helburuarekin.

Partaidetza saio honetara jaiak, festak, inauteriak eta azokekin lotura duten departamentu guztiak gonbidatu ziren, eta harrera oso ona izan zuen, ia gonbidatutako guztiek parte hartu baitzuten. Hau da parte-hartzaileen zerrenda:

- Arantza Estanga. Kirol departamentu burua.
- Gurutze Zubeldia. Administraria-Kultura.
- Angel Alonso. Komunikazioa-Kultura.
- Jokin Monfort. Jaiak-Kultura.
- Gorka Goikoetxea. Mertakaritza, Feriak eta Turismoa.
- Ana Goitia. Merkataritza, Feriak eta Turismoa.
- Luis Maria Lasa. Udaltzaingo burua.
- Edurne Zubizarreta. Udaltzaingoa.
- Lourdes Senovilla. Gizarte Zerbitzuak.
- Mertxe Fernandez Boga. Berdintasuna.
- Agurtzane Zuberu. Berdintasuna.
- Nerea Cereceda. Gazteria-Kultura
- Jon Mutuberria. Komunikazio arduraduna.

Mertxe Fernandez Bogak (berdintasun teknikaria) eman zion saioari sarrera, Behatokiaren prozesua eta Farapiko lan-taldea aurkeztuz. Ondoren, Tolosako udalak 2008tik jaietan berdintasunaren arloan egindako aurrera pausuak azaldu zituen. Farapiko dinamizatzaileek hitza hartu zuten eta Behatokiaren inguruko oinarriak azaldu zituzten (helburuak, funtzioak, funtzionamendu eredua...). Partaideei beraien balorazioa eta ekarpenak egiteko aukera ireki zitzaion, eta prozesua bera zein sistematizaziorako tresna sortzearen ideia oso ondo baloratuak izan ziren. Edukiei dagokionez ez ziren aldaketarik proposatu.

Jokin Monforten (jaiak teknikaria) arabera, "Behatokiaren bitartez oso argazki zehatza lortuko da", eta datu asko era kualitatiboan jasoko direla ikusita, kuantitatiboan bihurtzeko saiakera egitea proposatu zuen. Behatokiak berdintasuna eta jaiak sailei lan gehien eskatuko dietela



gehitu zuen, eta berak zein beste teknikari batzuek, jaietan berdintasunaren gaian egiten dena zentralizatu eta koordinatzea oso ondo baloratu zuten.

Zentzu honetan, Mertxe Fernandez (berdintasun teknikaria) arabera, departamendu batzuek berdintasunaren gaian dagoeneko egin dituzten aurrera pausuak ezagutu, baloratu eta konpartitzea izan beharko litzake lankidetzarako abiapuntua, eta horretarako, Behatokia tresna egokia izango da. Horren harira, teknikari batek baino gehiagok aipatu zuen beraien departamentuetan oso gauza gutxi dutela sistematizatuta, eta ondorioz, zaila izango dela horrela bidaltzea informazioa Behatokiari. Teknikari batzuek egindako lanagatik zorionduz amaitu zen saioa.

Azkenik, Tolosako Jaien Berdintasun Behatokiaren Oinarrien dokumentua erredaktatu da. Azken saio honetan ez zen eduki aldetik proposamenik egin, baina Farapi eta berdintasun teknikariaren artean, irizpide batzuetan sakondu eta forma aldetik hobekuntza batzuk egin ziren.

### 3. Eragile sozialei aurkeztu

Tolosako udalak Tolosako Jaien Berdintasun Behatokia onartuta, herritarrei eta jaiak antolatzen duten eragileei aurkeztea eta beraien balorazioak jasotzeko fasea ireki zen. Aurkezpen formalik ez egitea erabaki zen, eta jaiak antolatzen duten eragileak genero perspektibaren inguruan sentsibilizatzeko bi saio egin behar zirenez, hauetan Behatokiaren ideia txertatzea erabaki zen.

7 lagunek parte hartu zuten lehenengo tailerrean, 4 emakumek eta 3 gizonak, 6 elkarteren izenean: Txinparta (2), Kasino (2), Ero Etxe (1), Sukalde (1), Batukada Feminista (1), Ilarki (1). Saio horretan, "Jai berdinzaleagoak egiteko gida" oinarri moduan hartuz, jaietan genero ikuspegia txertatzeren inguruan duten zalantzak, mugak eta erronken inguruan hausnartu zen. Farapiko dinamizatzaile bat saioa gidatu eta talde-dinamikak eta elkarrizketak landu zituen. Ondoren, Mertxe Fernandez berdintasun teknikariak Behatokiaren proiektua azaldu zuen, helburu eta funtzioak zehaztuz. Harrera oso ona izan zuen egitasmoak.

Bigarren saiorako kideek jaietan genero indarkeria eta sexu erasoen gaia landu nahi zutela azaldu zuten, eta horrela egin zen. Emakumeen aurkako indarkeria identifikatzeko eta honen

aurrean eragiteko estrategiak landu ziren kolektiboki, eta Behatokiaren markoan, indarkeria sexista nola landuko den azaldu zen. Horrez gain, erasoak prebenitzeko zenbait ideia sortu ziren, besteak beste: jaiak aurretik zabalpena handia egitea era desberdinetan, eta baliabide gehiago izatea gauzez etxera itzultzeko.

Saio honetan, 4 emakumek eta gizon batek parte hartu zuten, elkarte hauen izenean: Gure Txokoa (1), Ero Etxe (1), Sukalde (1), Batukada Feminista (1), Ilarki (1). Halaber, Jokin Monfort jaiak teknikariak, Tosaldea Garatzeneko Migrazio eta Aniztasun Saileko teknikariak, Kristina Moralesek, Mertxe Fernandezek eta Agurtza Zuberok parte hartu zuten. Honek indarkeriaren aurkako protokoloa aurkeztu zuen eta baita jaietara egokitutako protokoloa ere. Gainera, aurtengo eraso sexisten aurkako Inauteriko kanpaina azaldu zuen, Tolosak, ezetz!/Joka Sano: Kartelak, esku-muturrak, pegatinak, puntu moreak eta txartelak indarkeria salatzen telefonoekin.

## HELBURUA

Jaiak berdinzaleagoak izan daitezen, berdintasun politikak modu estrategiko, sistematizatu eta eraginkorrean inplementatzeko tresna.

## FUNTZIOAK

- Jaietan generoaren inguruko informazio objektibo, neurtua eta eguneratua jasotzeko: emakume eta gizonen partaidetzan, antolakuntzan, indarkeria sexistan eta komunikazioan.
- Jaietan berdintasunaren jarraipen koordinatua, zentralizatu eta sistematizatu egiteko.
- Orain arte Tolosako udalak berdintasunari lotuta sustatutako neurrien eta proposamenen jarraipena egiteko.
- Jaietan berdintasun politiken plangintza estrategikoa, ebaluazioa eta hobekuntza iraunkorra egiteko, aurrera begirako lehentasunak eta lan-ildoak diseinatzeko balioko duena.
- Herritarrak eta udal departamentuak jaietan berdintasun ikuspegia txertatzearen beharraz sentsibilizatzen jarraitzeko.
- Tolosa jaietan berdintasunean erreferente eta inspirazio iturri (dokumentazio zentro moduan zein prozedura metodologikoetan) izaten jarraitzeko.

# AZTERKETA EDUKIAK ETA ALDAGAIK

## 1. Komunikazioa

1.1. Kartela	
Kartelaren genero analisia	Hizkuntza, irudi eta eduki sexiten presentzia
	Emakume eta gizonen presentzia eta rolak
Kartel lehiaketaren genero analisia	Kartel lehiaketa: oinarriak
	Kartel lehiaketa: epai-mahaian emakume eta gizonen kopurua
	Kartel lehiaketa: partaide kopurua eta sexua
	Kartel lehiaketa: irabazleak eta sexua

1.2. Egitaraua, prentsa oharrak, web orria eta sare sozialak	
Egitaraua / prentsa oharrak / web orriaren genero analisia	Hizkuntza, irudi eta eduki sexisten presentzia.
	Emakume eta gizonen presentzia eta rolak.
	Genero berdintasuna eta indarkeria sexitaren aipamena.
	Berdintasunaren inguruan jaietan egindako jardueren eta aurrerapenen aipamena.

1.3. Udaleko agerraldiak	
Udal agerraldi publikoen genero analisia	Emakume eta gizonen kopurua eta kokapena.
	Berdintasun saileko ordezkartza politikoaren presentzia eta kokapena.
	Hizkuntza, irudi eta eduki sexiten presentzia.
	Genero berdintasuna eta indarkeria sexitaren aipamena.
	Berdintasunaren inguruan jaietan egindako jardueren eta aurrerapenen aipamena.

## 2. Egitaraua

Ekintzaren kokapena	Data
	Asteko eguna
	Ordua
	Eguneko momentua
	Iraupena
	Espazioa

Ekintzaren izaera	Tipologia
	Erritual mota
	Formaltasun maila
	Udal ordezkarien presentzia
	Genero analisia

Partaideen analisia	Kopurua
	Adina eta tipologia
	Sexua
	Partaidetza maila
	Genero analisia

Ikusleen analisia	Kopurua
	Adina eta tipologia
	Sexua
	Partaidetza maila
	Genero analisia

Antolakuntza	Antolatzailea
	Profila (instituzionala, elkarte...)
	Eragile kolaboratzailea
	Eragile kolaboratzaile profila

Lehiaketak	Irabazleak eta sexua
	Sarien izaera eta genero analisia
	Sarien balio ekonomikoa
	Epaimahaikideak eta sexua

Aurrekontua	Zenbatekoa
	Jatorria
	Departamentu aurrekontu osoarekiko portzentajea
	Jaietako aurrekontu osoarekiko portzentajea

Eraldaketarako lanketa	Genero analisia
	Orain arte egindako lanketa
	Eraldaketa aukerak
	Lanketa espezifikoa
	Inplikaturako eragileak

### 3. Indarkeria sexista

3.1. Indarkeria sexistaren aurkako kanpainak	
Kanpainaren analisi eta balorazioa	Espazio berezia jarri den kopurua
	Egindako jarduerak (prestakuntza, pultserak, kartelak...)
	Komunikazioa: egitarauan, web orrian, karteletan, pegatinak...

3.2. Sexu erasoen eta protokoloaren kudeaketa	
Sexu-erasoen jarraipena eta analisisia	Sexu erasoen jarraipena: gertaera kopurua, egoeraren deskribapena eta emandako erantzuna.
Protokoloaren egoeraren deskribapena eta balorazioa	Protokoloaren egoera: egina, martxan, partaideak...
Protokoloaren aktibazioaren ondoren egin beharreko jarraipena eta balorazioa	Protokoloa aktibatzen den bakoitzean: egindakoaren deskribapena (adierazpen instituzionala, deialdi publiko bateratua...)

## Antolakuntza

4.1. Udala: jaiekin lotura duten departamentuak	
Jaien arduradun instituzionalen genero analisia	Jaien antolakuntzan dauden politikariak eta beraien sexua
	Genero gaietan formakuntza duten teknikariak
Jaien antolakuntzan parte hartzen duten sailak eta berdintasun sailaren arteko harremana	Jaiak eta Berdintasun sailen arteko koordinazioa eta elkarlana
	Kultura eta Berdintasun sailen arteko koordinazioa eta elkarlana
	Beste departamenturik? Eta Berdintasun sailen arteko koordinazioa eta elkarlana
	Berdintasunarekin lotura duten egindako jarduerak
Jaiak antolatzen duten departamentuen eta jaien aurrekontua	Jaiak departamentuaren aurrekontua
	Kultura departamentuaren aurrekontua
	Berdintasuna departamentuaren aurrekontua

4.2. Herri eragileak: jaiak antolatzen dituzten elkarteak (auzoetakoak, gastronomikoak, kirol eta kulturakoak...)	
Elkarteen helburuak, partaideak, ordezkariak jaien antolakuntzan eta honen genero analisia	Emakume eta gizonen kopuruak elkarteetan
	Elkarteen ordezkariak jaien antolakuntzan
	Elkarteen helburu orokorrak eta genero analisia
Elkarteei jaietan antolatzen duten jarduerak eta honen genero analisia	Jaietan antolatzen dituzten jarduerak eta genero analisia
Elkarteei jaietan jasotzen duten diru-laguntza kopuruak eta honetarako baldintza eta irizpideak	Elkarteei emandako diru-laguntza kopuruak
	Elkarteei emandako diru-laguntzetako baldintzak eta irizpideak



4.3. Jai bilerak	
Jai bileretan emakume eta gizonen partaidetza kuantitatibo eta kualitatiboa	Emakume eta gizonen kopurua
	Emakume eta gizonen partaidetza, rolak eta erabaki-ahalmena bileretan
Jai bileren funtzionamendua	Bileren funtzionamendua: deialdi era, egun eta ordutegiak, kontziliazio erraztasunak...
Berdintasun gaien eta berdintasun teknikariaren presentzia jai bileretan	Berdintasun teknikariaren presentzia
	Berdintasun gaien presentzia: jaien antolakuntzan, jaien balantzean.

# BEHATOKIAREN FUNTZIONAMENDUA

## 1. Funtzionamendu irizpideak

- Ebaluazio eta hobekuntza iraunkorra.
- Baliabide pertsonal eta materialak neurtu, aurreikusi eta optimizatu.
- Genero zeharkakotasuna eta udal-eragileen arteko koordinazioa eta elkarlana.
- Sentsibilizazioa eta komunikazio positiboa.
- Progresibotasuna, ondorengo zentzuetan:
  - o Behatokiak izango dituen funtzioak progresiboki haziko dira.
  - o Parte hartuko duten eragile kopurua eta beraien inplikazio maila progresiboki igoko dira, Behatokiaren garapen mailaren arabera.
  - o Jaietako esparru desberdinen lanketa eta azterketan gero eta gehiago sakonduko da.
  - o Aztertzen diren jaien kopurua gradualki igoko da: San Joanak, Inauteriak, auzoetako jaiak eta azoka bereziak.

## 2. Partaideak

Berdintasun Sailak izango du Behatokiaren lidergoa eta zuzendaritza, eta aurretik aipatutako funtzioak betetzeko, gainontzeko eragileekin koordinatu eta elkarlanean arituko da.

Eragile hauek udal barnekoak (udal departamentuak edo batzordeak) edo kanpokoak izan daitezke (elkarteak, herritarrak...).

## 3. Funtzionamendu eredua eta tresnak

Behatokiaren lana lau fasetan banatzen da: plangintza, informazioa jaso, analisia eta komunikazioa. Urteko prozesua eta ziklikoa izango da; eta etengabeko ebaluazioak urte bakoitzaren plangintza ahalbidetuko du.

Jarraipenerako oinarrizko tresna excel sorta bat izango da, aipaturako fase bakoitzak excel dokumentu bat izango duelarik. Hauetan item batzuen arabera informazio kuantitatibo eta kualitatiboa jasoko da, eta urtez urteko informazio bilketa egingo denez, eboluzioa ikusi eta konparaketak egiteko aukera egongo da. Maximoetan pentsaturako tresna bat da, aukera ematen duena gradualki informazio gehiago edo desberdina aztertzea.

Jarraipenerako excel sorta honetaz gain, Behatokiak beste euskarri batzuk ere sortuko ditu, aurreikusten dituen beharren arabera. Hauetariko batzuk Behatokiaren eratze prozesuan identifikatu dira, eta Behatokia martxan jarri ahala diseinatzen joango dira. Adibidez:

- Ekintzen behaketarako gidoiak.
- Departamentuei informazioa eskatzeko fitxak: eskatuko zaien dokumentazioa eta epearekin.
- Jai bileretan genero analisia egiteko gidioa.
- Emaizak komunikatzeko euskarriak...

Edozein kasutan, Behatokia eragile bizia izango da, etengabeko hobekuntza prozesuan egongo dena. Honek esan nahi du funtzionamendu eredua eta erabiliko diren tresnak ere periodikoki birpentsatuko direla, bere helburuetara zein mailatan egokitzen diren eta hobekuntzak nola txertatu daitezkeen aztertzeko.

Ondorengo lerroetan funtzionamendu eredu honen faseak eta horretarako sortutako tresnak azaltzen dira.

### 3.3.1. Plangintza

Berdintasun sailak Behatokiaren urteroko plangintza egingo du, aurreko urteko ebaluaziotik ateratako ondorioak eta irizpide eta lehentasun politiko eta teknikoak kontuan hartuz. Ariketa hau errazteko, jarraipenerako excel dokumentu bat baliatuko du, ondorengo aldagaiekin:

- Eginkizuna eta izendapena: zer egingo den.
- Analisia egiteko momentua: jarduera aurretik, momentuan ala ondoren.
- Dagoeneko egiten den ala ez.
- Analisia egiteko beharrezkoak diren euskarrien zerrenda.

### 3.3.2. Informazioa jaso

Aukeratutako edukien genero analisia egiteko, zein informazio eskuratu behar den, eta zein euskarriren bitartez, zehaztuko da.

Bi motako informazioa izan daiteke:

- *Berdintasun sailari dagokiona*: dagoeneko daukana edo sortuko duen informazioa. Informazio berria sortzeko, Berdintasun sailak beharrezkoak diren euskarriak diseinatuko ditu (behaketarako gidoiak, elkarteek betetzeko fitxak...).
- *Beste departamentuei dagokiena*: Berdintasun saila dagokion departamentuarekin jarriko da harremanetan, beharrezkoak diren euskarriak eskatzeko eta jarraipena egiteko. Lan hau errazteko, excel dokumentu batez baliatuko da, non ondorengo informazioa jasoko den: zein euskarri behar diren, zein departamentu edo eragileri eskatuko zaizkion, eta zein momentutan. Era honetan, beste departamentuekin elkarlana era koordinatu eta arautu batean egingo da.

### 3.3.3. Analisia

Behin informazio eta dokumentazio guztia eskuratuta, aukeratutako edukien genero analisia egingo da. "Analizatzeko edukiak eta aldagaiak" atalean azaltzen dira analisi hau egiteko erabiliko diren edukiak eta irizpideak. Atalei dagokienez, ondorengoak izango dira, eta bakoitzak analisirako excel tresna bat izango du:

- *Komunikazioa*
- *Egutegia*
- *Indarkeria sexista*
- *Antolakuntza*

### 3.3.4. Komunikazioa

Ateratako emaitzak hartzaille desberdinak izango ditu, eta bakoitzarentzat komunikazio kanal berezituak erabiliko dira.

Fase hau gradualki garatuko da: Behatokiaren analisi gaitasuna eta komunikazio baliabideak hazi ahala, eragile gehiagori eta sakontasun maila gehiagorekin komunikatu ahalko ditu ondorioak.

Hauek dira, optimoki, Behatokiak izango dituen komunikazio hartzaille eta ibilbideak:

- **Jaietan inplikaturako udal-departamentuak:** Berdintasun sailak bakoitzari dagozkion emaitzak eta berdintasuna txertatzeko gomendioak helaraziko dizkio, departamentu bakoitzeko berdintasun interlokutoreen bitartez.
  
- **Alkatetza:** Berdintasun sailak Behatokiak ateratako ondorioen eta emaitzen txosten bat igorri eta aurkeztuko dio Alkatetzari.
  
- **Jai Bilerak:** Jaien balorazio bileran Berdintasun sailak Behatokiak ateratako ondorioak eta hurrengo urterako proposamenak azalduko ditu.
  
- **Jaietan parte hartzen duten eragileak (auzo elkarteak, elkarte gastronomikoak, kultur eta kirol elkarteak...):** Beraiek antolatutako jardueren inguruko genero analisisia egin bada, ondorioak eta eraldaketarako proposamenak aurkeztuko zaizkie. Horretarako, udala eta elkarte hauen arteko ohiko kanal erabiliko dira (bilerak, e-maila...).
  
- **Herritarrek:** Baloratu beharko da zein maiztasunekin eta zein formatutan komunikatu herritarrei Behatokiak ateratako emaitzak. Horretarako, web orriaz baliatu daiteke (udaleko web orrian edo Berdintasun saileko gunearen baitan).